

In memoriam

Celina Ribechini eta Mikel Arizaleta gogoan

Iñaki Goiogana Mendiguren



Celina Ribechini. 2018an Kurik hirugarrena osatuta zegoela albiste larri bi heldu zitzaizkigun, biak ala biak heriotzen berri ematen zutenak eta biak gurean idatzi zuten egileenak: Celina Ribechini eta Mikel Arizaleta.

Lekeitioko udal artxiboan lanean nihardue-la ezagutu nuen Celina Ribechini. Halako batean emakume nagusi bat hurbildu zitzaigun artxibora dokumentaziotan. Ez ziren ikertzaile asko urreratzen garai hartan artxibora eta hori nahiko ez eta, paperak azertu nahian gure artean eseri zen emakume hark ez zituen betetzen, ba, estereotipoek eskatzen dituzten arauak. Ez daukat gogoan, baina seguru nago atea igarotzen ikusi nuenerako bururatu zitzaidala honako esaldiren bat: “nora ote doa “atso” hau”. Harrokeriak, ezjakina izateak eta beste hainbat aurreiritziak esan edo pentsa arazten diguten esaldi mingots eta pozoitsua.

Artxiboan lekuz kanpo zegoena neu nintzen, eta ez Celina, honek bazekien eta, ondo jakin ere, nora zihoan artxibora bidea hartu zuenean. Izan ere, ordurako, gurera etorri zenerako, erdi amaituta zeukan bere tesia, eta beste iturri batzuetan edandakoari zerbait gehiago eranstea eta ordura artekoa biribiltzeko agiri bila zetorren, ezagutzen ez zuen bere gaiaren gaineko dokumenturik bazen behintzat.

Historialari lana barru-barrutik bizi zuen eta laster hasi zitzaigun bere bizitzaren gorabeherak kontatzen eta lan berriaren ezaugarriak aletzen. Esan zigun aurre-jubilatu arte telefonista izan zela, urte luzez, eta Telefonican irabazi zuen soldatak egin zuela aske. Baita esan zigun, jubilazioa ez zuela erretiro bihurtu nahi eta, ikasgelan zaharrena izan arren, unibertsitatean, gaztetan egin ezin izan zuen karrera egiteko, matrikulatu zela. Matrikulatu bakarrik ez, atera ere egin zuen karrera eta, esan bezala, tesia burutu ere bai, honekin historialari eta idazle izateari ekinez.

1993an aurkeztu zuen bere tesia; lekeitiar ilustratu baten biografia, hain zuzen ere, “La Ilustración en Vizcaya. El lequeitano Ibáñez de la Rentería”. Inondik inora, XVIII eta XIX. mendeen amaiera eta hasiera urteetan Bizkaian izan zen politikari eta pentsalari handienetakoa. Celinak bere lana burutzeko ez zuen ez artxiborik ez beste iturriarik atzer-

tu gabe utzi lekeitiar ilustratuaren biografia ontzeko.

Harrezkerokoa da Celinaren lan historiko eta literarioa eta ez da makala kontuan hartuta ikasketak ia 60 urterekin burutu zituela. Historia-aldizkarietan hainbat lan atera zituen eta liburu formatoan beste mordo bat: “Venturas y desventuras de un mercader en Bilbao del siglo XVIII”, “De la guerra de la Convención a la Zamacolada, insumisión-matxinada-dispersión”, “Los Ordeñana Goxenechea”, “Desde Atxuri a Basurto, centenario del Hospital de Basurto (1908-2008)”, “El maestro de lenguas” eta “Retazos y pinceladas. Historia de Euskal Herria, 1931-1975”. Ikusi daiteke bere gaia eta garaia Bilbo, familia-historiak, biografiak eta aro modernoaren azken aldia eta historia garaikidea izan zirela.

Familia-historien artean berearena ere landu zuen, hobeto esanda bere birraitona Friedrich Bernhard von Harlen-ena. Ze, Ribechini deiturak ondo adierazten duen bezala, jatorri anitzekoa zen gure historialaria. Aitaren partetik jatorri italiarra bazuen, amaren aldetik, berriz, urrunagokoa, alemaniarra. Eta alemaniar jatorri honi heldu zion “El maestro de lenguas” nobela historikoa. 1839an Alemaniatik Bilbora aldatu zen birraitonaren paper zahar batzuk aurkitu zituen eta, beti bezala, batera eta bestera jo ondoren, eta bere arbasoaren nahikoa erreferentziarik aurkitu ez zuenez, liburua garaiko prentsan ageri ziren albisteetan oinarrituriko pertsonaiak sortuz, lehen karlistadaren osteko Bilbo birsortzeko eta zelakoa zen erakusteko baliatu zuen. Honetara, amaren aitona piztu zuen eta sasoi hartako Bilbon kokatu, holan garaia, hiria eta birraitona Federico erakutsiz.

Bere azken lana idazteko, zelan ez, dokumentaziora jo zuen Celinak, baina, nago, pape-retan aurkitu zuena ondo baino hobeto ezagutzen zuela, bizi izatea tokatu zitzaiolako. Bere historiagile senak dokumentuetara zeraman arren, “Retazos y pinceladas. Historia de Euskal Herria 1931-1975” liburuan azaldu zuena, oker ibiltzeko beldur handirik barik, Celinarentzat ia buruz idazteko gaia zelakoan nago. Izan ere, bertan kontatu ziguna ez zen besterik izan Errepublikak piztu zuen poza eta esperantza zelan hondatu zuten gerra irabazi zutenek. Hau da, Celinari bizi izatea egokitu zitzaion

garaia. Azken liburu hau prestatzen zihardue-la ikusi nuen azkeneko aldiz Celina, egunkari zaharrak arakutzen frankistek, oraindino gerra amaitu barik, Begoñako Amari “gorriek lapurtutako” bitxiak “berreskuratu” ondoren, Bilbon antolatu zituzten prozesio eta manifestazioak dokumentatzeko. Orduan, ordurako eta ondoren, 40 urte luzez, frankistek egin zituzten demasiak gogora arazteko, ez ahazteko, egindako liburua.

Mikel Arizaleta. Celina Ribechini hil zenean, Gara egunkarian, Mikel Arizaletak bere gorazarre bat argitaratu zuen, honetara hasten zena, “Celina hil arte izan zen emakume libre eta, hil ere, hala hil zen, askatasun landu, borrokatu eta eskuratuaren jabe zela jakitun”.

Kasualitatea da, baina halakoak izaten dira. Mikel Arizaletari, aipatu dudan Celina Ribechiniri eskainitako obituari dotore eta barru-barruko hori idatzi eta gutxira, berari egokitu zitzaion segalariaren aurrean suertatzea, etxean izan zuen istripu batean.

Mikel Arizaleta, Celinaren ondoan, nago beste kasta batekoa zela. Celina apala zen lekuan, Mikel bizia; Bilbotar emakumeak liburu luzeak idazten zituen tokian, nafarrak artikulak maiteago zituen; Ribechini sarri aspaldiko pasadizoak ekartzeko, Arizaleta, ostera, eguneroko politikari lotzen zitzaion gehienetan. Hala eta guzti ere, izate askean eta betikoen zapalketak salatzen, iritzia libre botatzen, antzekoak ziren bata zein bestea.

Ikasketak amaitu nituenean eta lanik aurkitu ezin nenbilela ezagutu nuen Mikel. Ordurako Kinukak Lekeitioko argazki zaharrez osaturiko liburu bat argitaratuta zeukan, besteak beste, nire parte hartzearekin. Liburu hura ondo saldu zela-eta antzekoak ateratzeko argitaletxe bat osatzeko asmoz batu ginen dozana bat lagun inguru Okamikan Mikel artean zela. Horretan ari ginela lana aurkitzea lortu nuen eta argitaletxe asmoa bertan behera geratu zen. Baina ez erabat.

Mikelek ordurako landuta zeukan Bilbon frankistak hirian sartu aurretik funtzionatu zuen Herri Tribunalari buruzko liburua eta hori zen gure asmoetan argitaletxeak aterako zuen liburuetako bat. Eta bai atera ere, baina gu barik, berak, Mikelek bakarrik, argitaletxeari Oibar izena jarri. “El Tribunal de jurado (relatos). Euskadi 1936-1937”.

Liburu hau, Celinaren tesiaren antzera, 1993an argitaratu zen eta lanak badu bere mamia, gaurtik ikusita ere. Mikel nafarra zen eta ondo baino hobeto zeukan Nafarroan erreketete, falangista eta eskuin osoak herrialdean bizi izan zen gerra-ez hartan burutu zituen sarraskien berri, behin baino gehiagotan irakurri genion bere iritzi artikuluetan gai horren gainean. Hala eta guzti ere, Mikelek nahiago izan zuen Errepublikak matxinatuak zigortzeko Bilbon ezarri zuen tribunalaren berri eman, frankisten krimenen historia egin baino. Zergatik? Errepublikanoen justizia agerikoa zelako, gogorra izan zitekeena, baina, halaber, baldintza juridikoak betez egiten zena. Bestea, frankistena, ezkutuan burutu eta ilunpean gordetzeko burutu zena zen, justiziatik urrunen egon daitekeen ekintza. Nago honek guztiak Mikelen izatea ondo erakusten duela.

Liburu hori ezagutzen diot nik Mikeli, baina ez liburuetatik aldentuta ibili zelako. Alderantziz. Ogibidez Arizaleta itzultzailea zen, alemanetik gaztelerara hainbat lan ekarritakoa eta lanok eta beste irakurketa asko bere artikuluetan islatzen ziren. Beste askok usaindu ere egiten ez genituen autoreak aipatuz eta gurean zabal direnekin alderatuz hainbat artikulua ondu zituen garai bateko Egin eta Garan, baita interneten argitaratzen diren aldizkari digitaletan ere. Beti ere, momentuko gaiak jorratuz ikuspegi filosofiko eta historiko zabala ezagutuz, eta baita, beti ere, egiak, bere egiak nahi bada, libre eta tolesdurarik barik botaz. Mikelen idatzietan zuriak gutxi.

Bilboko udalean zinegotzi izan zen legealdi biz, 1983tik 1991ra bitartean, ezker abertzaletasuna ordezkatuz. Ez dakit ordukoa edo hurrezkerokoa den Ernesto Erkorekari Bidebarrieta aldizkarian eskaini zion artikulua. Erkoreka Bilboko azken alkate errepublikanoa izan zen eta, orduko gizon-emakume asko legez, gaur egun apenas edo bat ere ezagutzen ez duguna. Lan honetan, Erkorekaren memoriak aldizkarira ekarritik, errekonozimendu ederra eskaini zion Mikelek alkate ohiari, behar beharrezkoa.

Bere iritziak libre botatzen zekiena zenez, baten batek sektarioratzen ere jo zezakeen, baina hori ezeztatzeko horra adibidea. Mikelek gogor kritikatzeko zuen bere artikuluetan Eliza katolikoa, halanda be ez zuen inongo eragozpenik izan Jakob Georg Gapp apaiz austriarraren historia idazteko (Kurik, 3). Izan ere, abadea izan arren, nazismoari aurre egin zion gizona ere izan zen Gapp. Naziei ihesean gurean eta Espainian ibili zen eta faxistek modua ikusi zutenean bahitu, Alemaniara eramane eta sasi-epaiketa egin ostean, urkatu egin zuten elizgizona. Horren berri Mikelek eman zuen.

Celina eta Mikel, Mikel eta Celina gure aldizkarian izateko zorian izan ditugun gizon-emakumek. Iragana libre eta zintzo erakusten ahalgindu ziren historialariak. Beude gure gogoan.



Aralderen itxieran

Liburu harrak harrapatuta, barruraino janda gaudenok halako egonezina sentitzen dugu eskuetan edo atzamarren artean aleren bat luzaroan ez dugunean, abstinentzia sindromea edo antzeko zerbait. Zer esanik ez, “droga” hori non lortu ez dakigunean. Esango

dit baten batek gaur egun ez dela arazoa liburuak aurkitzea, nonahi egonda ere, ordenagailuan edo telefonoan maniobra gutxi batzuk eginda, laster aurkitu daitekeela zeinahi liburu eta, gainera, etxera bertara ekarriko dizuela. Baina, zer esan diezazueket, liburu-denda batean liburu bat hartzeak, beste bati begirada botatzeak, hurrengoari aurreneko orrialdeak irakurtzeak edo irudiak ikusteak, ematen digun plazeraz holakorik sumatzen ez duzenoi. Eta dendariak urteetan konplize izan badituzu, adiskideak, atea zeharkatu orduko ia-ia zein liburu hartuko duzun dakitenetakoak, edo dendara joateko ohitura duzun egunean eta orduan bertara joan ez eta hurrengo zozaren aldi ezer gertatu ote zitzaizun eta antzeko hurbiltasunerainoko konplizitateetara heldu direnak, zer sentitu daitekeela uste duzue holako ezinbesteko (liburu-droga kateatuta gaudenontzat ezinbesteko, bai) gure liburu- horniketa-denda ixten denean?

Euskal Herrian herri gutxi dira Lekeitioren tamainakoak, eta handiagoak ere, liburu-dendarik dutenak. Akaso, beste zenbait gauzaren artean liburuak ere saltzen dituzten dendak dituzten herriak bai, baina liburu-dendarik dutenak ez horrenbeste. Holako luxurik gaur egun leku gutxitan, herri handietan ere holako bitxi-dendak (eta horregatik, denda bitxiak) hurri dira-eta.

Bere txikian, Lekeitiok ia 40 urtez izan du holako bitxi-denda (eta benetan denda bitxia!). Baina, urteen pandemiak, bizi garen artean denok erasaten gaituen denborak, eraginda ixteko ordua heldu zaio. Beste pandemiak, covidarenak, dena hankaz gora jarri aurretixoan Elbik eta Aintzane Aralde ixtea erabaki zuten, biek erretiroa hartzeko. Aralderen itxiera, ezer betirako ez denaren seinale, beharrezkoa izanagatik, dena ez da galdu Aralde zenak segida izango du-eta, Eskolapean bertan, kalearen bestaldean. Zorionekoak gu... eta gure harrak.

Beraz, Elbi eta Aintzane zorionak erretiroagatik eta eskerrak egindako lanagatik, emandako zerbitzuagatik. Bai, zerbitzuagatik, herriarentzat zerbitzu publikoa dela nagoelako liburu-denda. Nik neuk behintzat ez ditut ahazteko, eta ez eta ahaztuko ere, Aralden igarotako orduak, zuokin biokin izandako berriketak eta nire harpartikularri jaten emateko bertan aurkitutako letra eta paperezko bitxiak. Goizane Landabasok, Berrian 2019ko uztailaren 16an Aralderen itxieraren gainean idatzi zuena hona ekarrita, liburu-saltzaileok heroiak zarete... eta ezinbesteko zerbitzua betetzen duzenak ere bai.



Aintzane Aboitiz eta Elbi Eiguren Aralde liburu-dendan